

# getxoBerri



**Getxo**

*bizi ezazu*



#GetxoBiziEzazu

Doako alea

1437 zb.

[www.getxo.eus](http://www.getxo.eus)

[getxoberri@getxo.eus](mailto:getxoberri@getxo.eus)

Urtarrilak 5

>> Urtarrilak 15

2017

## / Nabarmentzekoak

- > Arazo ekonomikoak dauzkaten pertsonentzako hobariak sartzen ditu Getxo Kirolak (2. or.)
- > I. Urbaneja, M. Aristegui, B. Pla, X. Pereda, E. Pinedo eta J. Castroviejo dira hautagaiak Getxoko 2016ko kirolari onenerako (3. or.)
- > Ataulfo Argenta Gazte Orkestraren kontzertu solidarioa (4. or.)

Castroviejo da kirolari bizkaitar onena, kirol prentsarentzat (3. or.)



**Getxon Zuzenean.** Hilaren 12an, osteguna, Algortako Jolasaurre tabernan, 20:00etan, Endika Sangroniz (folk-rocka). Sarrera doan.

**Antzerkia,** hilaren 14an, larunbata, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 20:00etan, Ados Teatroaren eskutik, "Idiot txou". Euskaraz. Sarrera: 10€.

A-  
GENDA

## Melchor, Gaspar eta Baltasar prest daude dagoeneko umeak hartzeko

Ostegunean, urtarrilak 5, Erregeen Desfilea berriz aterako da Getxoko kaleetara. Ibilbidea bi zatitan egingo da: Andra Mari-Algorta eta Areeta-Romo. Aurten, Ekialdeko Erregeen ibilbidean hainbat elkartetako boluntariak hartuko dute parte: Getxoko Gurutze Gorria, SIKAP (Euskal Herriko Elkarte filipinarra), Dantzarte dantza-akademia eta Gaztetasuna eta Eskubeltz aisialdiko taldeak. Lehenengo ibilbidea Andra Mariko kiroldegian hasiko da 18:00etan eta Algortako Kasinoan bukatuko da. Beren ibilbidea amaitutakoan, Erregeek Algortako Kultur Etxean (Villamonte) hartuko dituzte umeak. Bigarren ibilbidea Areetako Etorbidetan hasiko da 19:00etan eta Gobelaurren bukatuko da. Oraingo honetan, Erregeak Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan egongo dira haurrekin, horiek egindako eskaerak entzuteko.



Urtarrilaren 10etik 25era izango da

## Abian da 2017ko aurrekontu parte-hartzaileen prozesuaren lehenengo fasea

Urtarrilaren 10etik 25era bitartean izango da herritarrek parte hartzeko prozesuaren lehenengo fasea aurtengo aurrekontuen zati bat egiteko. Horretarako, milioi bat euroko diru-saila esleitu da, 2017ko aurrekontuen aurreproiektuetan aurreikusita dagoena. Prozesua Gobernu Taldeak (EAJ-PNV eta PSE-EE) eta EH-Bilduk aurrekontuen kontuetan hartutako akordioaren ondorioa da. Prozesua bi fasetan egingo da. Lehenengo honetan herritarrek egindako proposamenak bilduko dira.

### Nola hartu parte

- Aurrez aurre edo *online* parte hartu ahal izango da.
- Inprimakiak betez eta entregatuz Herritarren Arretarako Bulegoetan (HAB) eta Andra Mari, Gobela eta Fadurako kiroldegietan erabilgarri jarriko diren kutxetan.
- Proposamena(k) (eskaneatutako eranskin gisa) helbide elektronikoa bidaliz: [gobemuirekia@getxo.eus](mailto:gobemuirekia@getxo.eus)
- Udal webgunean erabilgarri dagoen inprimaki digitala betez [www.getxo.eus/gobiernoabierto](http://www.getxo.eus/gobiernoabierto)
- Inprimakia betez eta sartuz Algorta, Areeta eta Bidezabalgo geltokien inguruan horretarako jarriko diren postontzietan.

### Informatzeko hitzaldiak

- urtarrilak 10, 19:00etan: Villamonteko Kultur Etxean (Algorta).
  - urtarrilak 11, 19:00etan: Getxo Elkartegian (Areeta).
  - urtarrilak 12, 19:00etan: *Gobelaurre* Boluntarioria zentroan (Romo).
  - urtarrilak 13, 19:00etan: Andra Mariko kiroldegian.
  - urtarrilak 16, 19:00etan: Gobela Ikastolan (Neguri)
- Informazio gehiago: [www.getxo.eus/gobiernoabierto](http://www.getxo.eus/gobiernoabierto)







### URTARRILAK 5 OSTEGUNA

**Errege desfilea.** Andra Marin eta Algortan. Arratsaldeko 18:00etan, Andra Mariko kiroledegitik Algortako Kasinoraino. Erregeen harrera Villamonteko Kultur Etxean, 19:00etan. **Areeta-Romon.** 19:30ean. Areetako etorbideetik Gobelaurrerraino. Erregeen harrera Musika Eskolan, 20:15ean. **Getxolandiaren amaiera.** Gabonetako haur parkeaz gozatzeko azken eguna. 11:00-14:00 eta 16:00-19:00. Sarrera: 3,50€ (5 bidaia).

### URTARRILAK 7 LARUNBATA

**Erakusketa.** Algortako Torrene Aretan, Endika Basagurenen "Helmugak" izeneko erakusketa. Hilaren 29ra arte.

**Biotz Alairen Kontzertua.** Bazkideen kontzertua Da Capo Ensemble orkestrarekin. Biotz Alai Txikiren aurkezpena. 20:00etan Algortako Bariko San Nikolas parrokiari.

### URTARRILAK 8 IGANDEA

**Haurrentzako zinea.** Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 17:00etan, "Albert". Euskaraz. Adin guztientzat. Sarrera: 2,10€.

**Ongintzazko kontzertua.** Ataulfo Argenta Gazte Orkerstra (Santander). 12:30ean Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan.

### URTARRILAK 9 ASTELEHENA

**Deustobide: matrikulazioa.** Hilaren 20ra arte, Deustuko Unibertsitatearen Kultur Aisia Unibertsitatean programako ikastaroetan apuntatzeko epea zabalik. Informazioa eskuragarri Kultur Etxean.

**Erakusketa.** Algortako Azokako aretoan, Vanesa Piresen "Levitation" (argazkiak) izeneko argazki erakusketa. Hilaren 31ra arte.

**Hitzaldia.** "Claves para una transición energética hacia un modelo productivo y sostenible en Euskadi". Hizlari: José Ramón Becerra (ingeniaría, laneko eta ingurumeneko arriskuaren aditua eta Elkarrekin Podemos (EQUO) taldeko Euskal parlamentaria). 19:00etan, Gobelaurreko (Romo) Boluntzariotzaren Zentroan. Sarrera dohainik. Antolotzaile: Sinope Kultur Elkarte.

### URTARRILAK 12 OSTEGUNA

**Erakusketa.** Algortako Azokako aretoan, Jakue Barearen "Naturaleza urbana" (olioak) izeneko argazki erakusketa. Hilaren 25era arte.

**Getxon Zuzenean.** Algortako Jolasaurre tabernan, 20:00etan, Endika Sangroniz (folk-rocka). Sarrera dohainik.

### URTARRILAK 13 OSTIRALA

**Kontularien kluba.** Liburutegiak Topaleku. Algortako Kultur Etxean, 19:00etan, ipuin-kontalaria izan edo entzun nahi duten nagusiez osatutako taldearen saioa. "Asia". Sarrera dohainik.

**Cinema Paradiso.** Andrés Isasi Musika Eskolan, 21:00etan, jatorrizko bertsoan azpizdatzuekin, "Ahorra si, antes no" filmaren proiektzio eta foruma. Zuzendaria: Hong Sang-Soo. Hiz: koreera. 7 urtetik gorakoentzat. Sarrera: 2,90€.

### URTARRILAK 14 LARUNBATA

**Antzerkia.** Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 20:00etan, Ados Teatroaren eskutik, "Idiot txou". Aktoreak: Asier Hormaza, Dorleta Urretabizkaia eta Josean Bengoetxea. Euskaraz. Sarrera: 10€.

### URTARRILAK 15 IGANDEA

**Haurrentzako zinea.** Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 17:00etan, "Buscando a Dory". Adin guztientzat. Sarrera: 2,10€.



## Jarduera fisikoa eta kirola egiteko erraztasunak ematea, kirolaren udal erakundearen tasa arautzen duen ordenantza aldatzearen helburua

# Arazo ekonomikoak dauzkaten pertsonentzako hobariak sartzan ditu Getxo Kirolakek

Gobernu Taldearen (EAJ/PNV eta PSE-EE) aldeko botoekin, PP eta GUKen aurkako botoekin, eta EH-Bildu eta Ciudadanosen abstentzioarekin, abenduko osoko bilkuran behin-behinean onartu zen Getxo Kirolakentzako tasa arautzen duen ordenantzaren aldaketa, zailtasun ekonomikoak dauzkaten herritarrei hobariak ematen dizkiena, jarduera fisikoa eta kirola egin ditzatela errazteko.

Hobarien taulan, eskubide hori izateko portzentajeak handitu dira: lehen lanbide arteko gutxieneko soldata gehi % 85 zen; bada, orain gehi % 140 da. Hobariak emango zaizkie Getxo Kirolakentzako ikastaroak egiten dituzten pertsoneri, eta diru-sarrera kalkulatzeko kontuan izaten diren familia-unitateko kideen kopurua areagotu da. Familia ugarietarako hobaria kenduko da; aurrerantzean beraien errenta izango da kontuan (orain arte familia ugari guztiek jasotzen zuten diru-laguntza, haien kide kopurua eta errenta maila edozein zela ere).

### Eztabaida

PPk aurkako botoa eman zuen. Hobarien araubide berri bat ezarri da, kolektibo eta jarduera batzuetan handitu direnak, baina familia ugarietarako laguntzak kendu dira. Talde honen iritzian, udalak oso irizpide ezberdinak ezarri ditu eskaintzen dituen laguntzak emateko; horregatik, herritarrentzat zailagoa da laguntzok eskuratzea eta ulertzea.

Guk ere testuaren aurka azaldu zen, bi arrazoiengatik: testua ulergaitza delako eta talde politikoek ez dutelako ia parte hartu, alderdi horretatik aipatu zuten.

EH-Bildu abstentitu egin zen; alde positiboak eta negatiboak ikusten ditu puntu honetan (talde honen eta Gobernu Taldearen arteko akordioa izan da aurrekontuetarako). Lehenen artean, baliabide ekonomiko urriak dituztenen hobariak aipatu zituen: kuota alde aurretik ordaindu beharrik gabe laguntzak eskatu ahal izateko aldaketa, eta familia ugarien errenta eta kide kopurua kontuan izatea. Alde negatiboetan, EH-Bilduk adierazi zuen Gobernu Taldeak ez duela akordioa bilatu tarifen gaian. Horri martxoan ekingo zaio berriro ere, aurreratu zuten.

Gobernu Taldeak, modu berean, EH-Bilduk aipatutako alderdi positiboak konpartitzen ditu. Adierazi zuten ordenantzaren aldaketaren nobedadeek Getxo Kirolakentzako zerbiltzua arrazoi ekonomikoengatik eskuratu ezin dituzten pertsoneri lagundu nahi dietela. Ordenantza honetako nobedadeak Getxo Kirolakentzako Zuzendaritza Kontseiluari eman zitzaizkion azaroan, esan zuenez.

### Beste kontu eta mozio batzuk

Urteko azken osoko bilkura honetan, gainera, transferentziak erabiliz eta kreditua gaituz aurrekontua aldatzeko

zenbait dekreturen berri eman zen, eta jakinarazi zen Iñaki Amorrortu Martínezek Guken zinegotzi karguari uko egin diola.

Mozioen kapituluan, eta testigantza izaerarekin, bi onartu ziren.

Haietako bat, alderdi guztiek aho batez onartu zutena, Ciudadanosek egin zuen, eta Gobernu Taldeak trantsakzionatu zuen. Testuan, Getxoko igogailu publikoen bidaiariari datuak aztertzeke eskatzen da, datorren urtean funtzionamendu ordutegiak luzatzeko, dagokien erabilerrari etekin handiagoa ateratzeko. Arrapala mekanikoen ordutegiak luzatzeko eskaera ere egin zuten; hori erabakitzeke proposamenean, funtzionatzean egiten duten zaratara baloratuko da.

Onartu zen beste mozioan, Gukek aurkeztua, eskatu zen udalaren gardentasun atarian, "Herri lanak, hirigintza eta azpiegiturak" atalean, argitaratu daitezela bide publikoetan berrikuntza edota hobekuntza urbanistikokoak egiteko helburuz zerbiltzu teknikoek egiten dituzten proposamenak, eta ematen den informazio bakoitza bere izenburuari egokitzeko. Gobernu Taldeak auzi honetaz adierazi zuen, Gardentasun Legeak derrigortzen ez badu ere, Udalak dagoeneko Gukek eskatu duena egiten duela, eta gogora ekarri zuen Getxo estatuko udalik gardenen artean dagoela.

## Hurbilekojaleak Dendak elkarte gisa jaio da

Hurbilekojaleak Dendak taldeko partaide diren Euskadiko elikadura ekologikoaren saltokiak elkarte gisa osatu berri dira formalki. Une honetan 6 dira elkarte osatzen duten dendak, eta horietako bi Getxon daude kokatuta –bata Algortan eta Romon bestea–; elkarte horren helburua da tokiko saltokien sare txiki bat bultzatzea, produktu ekologikoak saltzen dituztenena, eta era berean, gure gizartearen kontsumo ekologikoa eta bertakoa sustatzea. Informazio gehiago: [www.hurbilekojaleak.org](http://www.hurbilekojaleak.org).

## Gurutze Gorriaren ikastaroak soroaleentzat

Uribealdeko Gurutze Gorriak bi prestakuntza-ikastaro antolatu ditu otsail eta martxorako: bata, Lehen Laguntzak + KDA (Kanpoko Desfibriladore Automatizatua), eta bestea, Uretako SOS. Bi ikastaroak egiteak soroaleentzat egiteko aukera ematen du, igerileku eta hondartzetan. Lehen Laguntzena, 48 ordu dira guztira, otsailean egingo da eta uretako SOSena martxoan. Izena emateko epea, ikastaroetan dauden tokiak betetzen direnean itxiko da. Informazio gehiago Arriluzeko bulegoetan.



### GAU ETA EGUNEKO FARMAZIAK ABENDUAREN 29TIK URTARRILAREN 8ERA ARTE

**Egunero:** 22:00-09:00: ALZOLA. Arene 4, Algortan.

**06 (OR)** 09:00-13:30: BAYANO. Ibaigane 9, Areetan.

09:00-22:00: GARDE. Iparbide 7, Algortan. JIMENEZ. Illeta 12, Algortan. EZQUERRA. Ollarretxe 27, Algortan.

**Hurrengo farmaziak asteburuetan ere zabalik egongo dira:**

**07 (LR)** 09:00-22:00: JIMENEZ. Illeta 12, Algortan. LOPEZ-LINARES. Kasune 10 (Salsiduko kantoian), Algortan. EZQUERRA. Ollarretxe 27, Algortan.

10:00-22:00: BAYANO. Ibaigane 9, Areetan. ANDRACA. Maidagan 61-A, Andra Mari.

**08 (IG)** 09:00-13:30: ANDRACA. Maidagan 61-A, Andra Mari.

09:00-22:00: ESQUISABEL. Algortako etorbidea 32. JIMENEZ. Illeta 12, Algortan. EZQUERRA. Ollarretxe 27, Algortan.

**14 (LR)** 09:00-22:00: BAYANO. Ibaigane 9, Areetan. JIMENEZ. Illeta 12, Algortan. LOPEZ-LINARES. Kasune 10 (Salsiduko kantoian), Algortan. EZQUERRA. Ollarretxe 27, Algortan.

10:00-22:00: BAYANO. Ibaigane 9, Areetan. ANDRACA. Maidagan 61-A, Andra Mari.

**15 (IG)** 09:00-13:30: JIMENEZ. Illeta 12, Algortan.

09:00-22:00: MONASTERIO CANTABRANA. Villa de Plentzia 4, Romo. JIMENEZ. Illeta 12, Algortan. EZQUERRA. Ollarretxe 27, Algortan.



- **Salgai edo errentan** ematen dut lonja bat Aitzgane kalean (Berango). Etxebizitza egiteko egokia. Tel.: 617 23 42 67.

Norberaren iragarkiak direnez gero, aldizkari hau ez da horien edukiarren egiazkotasunaren erantzule izango.



Tratu txarren biktimak artatzeko Eusko Jaularitzaren telefono zerbitzua: 900 840 111

Getxoberri Getxoko Udaleko Komunikazio Sailak kaleratutako argitalpena da eta horretan udalari eta tokiko bizitza-irratietako albisteak eta informazioak agertzen dira astero.

Komunikazio zinegotzia: Amaia Agirre. Zuzendaria: Javier García. Erredaktoreburua: Itziar Aguayo. Erredakzioa: Nekane Ardanza,

Monika Rodrigo, Iñigo Olondo. Urgull kalea z.g., 4. Tel.: 94 466 03 20. 48991 Getxo. e-posta: [getxoberri@getxo.eus](mailto:getxoberri@getxo.eus) Arte arduradunak: Flash Composition SL Inprimaketa: Editorial Iparraguirre S.A. Banaketa: Lantegi Batuak Fundazioaren egunOn zerbitzua Gordailu legala: BI-388-87

STAFF





## “Getxo Sasoi Sasoi” Kirokaren X. Gala 11n ospatuko da I.Urbaneja, M.Aristegui, B.Pla, X.Pereda, E.Pinedo eta J.Castroviejo dira hautagaiak Getxoko 2016ko kirolari onenerako

Irati Urbaneja eta Mercedes Aristegui tenis jokalaria, Barbará Pla errugbilaria, Xabier Pereda eta Ekaitz Pintado karateak eta Jonathan Castroviejo txirrindularia dira Getxoko 2016ko kirolari onenaren saria jasotzeko sei hautagaiak, aurtengo finalistak. Irabazlearen izena *Getxo Sasoi Sasoi* izeneko Kirokaren X. ekitaldian emango dute ezagutzera; hain zuzen ere, datorren asteazkenean, urtarrilaren 11n, 20:00etan egingo den ekitaldian, Fadura kiroldegiko ekitaldien aretoan. Hautaketan, herriko kirol kazetariez osaturiko epaimahai batek hartuko du parte. Sari hauen bitartez, Udalak gure kirolariak eta taldeak urtean zehar lortutako garaipenak saritu nahi ditu, eta aurtengo saria jasotzeko proposatutako zerrenda, bestalde, ondoko koadroan agertzen da.

GETXO SASOI SASOIAN 2016 SARIAK
GETXO KIROL BERRIAK-NESKA Irati Urbaneja eta Mercedes Aristegui
GETXO KIROL BERRIAK-MUTILA Xabier Pereda eta Ekaitz Pintado
GETXO KIROL BERRIAK-NESKEN TALDEA R. C. Jolaseta Tenis
GETXO KIROL BERRIAK-MUTILEN TALDEA C. D. Getxo
GETXO KIROL SARIAK-EMAKUMEA Barbará Pla
GETXO KIROL SARIAK-GIZONA Jonathan Castroviejo
GETXO KIROL SARIAK- EMAKUMEEN TALDEA Raspas Arraun Taldea
GETXO KIROL SARIAK- GIZON TALDEA. Fadura Tenis Taldea
GETXO SASOI SASOIAN SARI BEREZIAK-BERDINTASUNA INDARTUZ Getxo Igeriketa Bolue Kirol Elkarte
GETXO SASOI SASOIAN SARI BEREZIAK-MARKA HAUTSIZ Getxo Hockey Plus
GETXO SASOI SASOIAN SARI BEREZIAK-KIROLTASUNA Agustín López de Letona
GETXO SASOI SASOIAN SARI BEREZIAK-GETXO BERRITUZ Igeretxe Hotela
GETXO SASOI SASOIAN SARI BEREZIAK-GETXO ZABALA Elecnor
GETXO SASOI SASOIAN SARI BEREZIAK-AITZINDARIAK Julio de Solaun
GETXO SASOI SASOIAN SARI BEREZIA-JOKO OLINPIKOAK Bárbara Pla, Rocío Ibarra, María López de Eguilaz, Asier García eta Jonathan Castroviejo



Castroviejoren ondoan, nor bere sariarekin, Asier García, Lucía de la Puerta eta Luis Miguel López Itsasoko Gurutze Gorriko ordezkaria

## Castroviejo da kirolari bizkaitar onena, kirol prentsarentzat

2016. urtea ahaztezina izango da Jonathan Castroviejo txirrindulari algortarrarentzat. Europar lortutako txapelari, Qatarreko Munduko Txapelketako brontzeari eta Rioko Jokoetan irabazitako diplomari, guztiak erlojupeko modalitatean, sari berri bat gehitu zaie: 2016ko Bizkaiko kirolari onenarena. Bizkaiko Kirol Prentsa Elkarteak (APDB) emandako saria da, eta iragan hilabeteko hondarrea Bilbon ospatutako galan jaso zuen. Getxokoak, beste kirolari gailen gainditu

zituen bozketan: Mikel Urrutikoetxea pilotaria, 2015eko txapeladuna, Omar Fraile txirrindularia, Asier Atutxa aizkolaria eta Asier García saskibaloio jokalaria eta Getxoko bizilaguna, Rioko Joko Paralinpikoetan zilarrezko domina estatuko selekzioarekin eta Europako txapeldunorde bere taldearekin, Bilbao Bidaideak. Halaber, galan zehar saritu zituzten Lucía de la Puerta tenislari getxotarra, nesken promesa gisa, eta Itsasoko Gurutze Gorria, bere giza-balore eta arduragatik.



**Ane Alonso Ferrero Euskadirekin.** Saskibaloio jokalaria Huelvan da egunotan umeen euskal selekzioarekin, Espainiako selekzio autonomikoen Txapelketa jokatzeko. Han izango da larunbatera arte, urtarrilak 7. Getxotarrak gaur egun Askartza Klaret Saskibaloio taldean jokatzeko aukeratu dute bizkaitarrarekin Euskadikoa irabazi ondoren, joandako azaroan, Hondarribian.

Lehen zeharkaldia 15ean, Armañongo parke naturaletik

## Etorkizunak aurtengo mendi-irteeren egutegia plazaratu du



Etorkizuna Mendi taldeak aurtengo egutegia plazaratu du, mendira antolatutako dituen irteerena, alegia; urtariletik azarora egingo dira. Lehenengoa hil honen 15ean egingo dute –dagoeneko izenematea zabalik da–, Armañongo Parke Naturalera, Turtzioz-Armañon (856m)-Ranero (729m)-Pozalagua zeharkaldia izango dena.

Egutegiak ere honako irteera hauek aurreikusten ditu: Aralar, Ireber, Cuera eta Demandako mendilerroak, Iparla mendigunea, Picos de Europa, Benasqueko harana (Pirinioak), Valderejoko parke naturala eta Gorbeia. Informazio gehiago: 606 637 128 tel. edo [etorkizunamt@gmail.com](mailto:etorkizunamt@gmail.com).



**Garazi Sánchez, euskal zirkuituko txapelduna.** Garazi Sánchez surfleri getxotarra da Euskadiko Euskaltel Surf Zirkuituko txapeldun berria, aipatutako zirkuitua osatzen duten hiru probetatik azken biak irabazi eta gero. Garazik Mundakan eskuratu zuen bere azken garaipena. Surfleri getxotarra lanire González-Etxabarria eta Mikele Beatorri gailendu zitzaizkion; bi kirolari horiek bigarren eta hirugarren tokian sailkatu ziren, hurrenez hurren.





## Ataulfo Argenta Gazte Orkestraren kontzertu solidarioa

Igandean, hilak 8, Ataulfo Argenta Gazte Orkestrak, Juanlu Diaz-Emparanzak zuzenduta, ongintzazko kontzertua eskainiko du Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan. Emanaldia 12:30ean hasiko da eta bildutako dirua proiektu solidario baten tzentzat izango da.

Kontzertua Abreu laukotearen emandaldi txiki batekin hasiko da. Laukotea

honako hauek osatzen dute: Alberto Cid (biolina), Laura Sánchez (biolina), Inés Moreno (biola) eta Nora López (biolontxeloa).

Ondoren, orkestrak Urte Berriko kontzertua eskainiko du Vienako estilo berean; bertan, besteak beste, Strauss, Tchaikovsky, Brahms eta Saint-Saëns konpositoreen lanak interpretatuko dira.

**Bazkide kontzertua, Biotz Alairena.** Biotz Alai abesbatzak, Juanlu Diaz-Emparanzak zuzenduta, bazkideentzako ohiko kontzertua eskainiko du larunbatean, hilak 7, Algortako Bariko San Nikolas parrokian. Emanaldian, Biotz Alai Txiki estreinatuko da; abesbatzaren txikien atala da eta dagoeneko 40 ume baino gehiago ditu. Oraingo honetan, algortarrak Margarita Lorenzo de Reizabalek zuzentzen duen Da Capo Ensemble orkestrarekin arituko dira.

## Endika Basagurenen erakusketa Torrene Aretoan

Urtarrilaren 7tik 29ra bitartean, Endika Basaguren artista bilbotarrak *Helmugak* izeneko lana erakutsiko du Algortako *Torrene Aretoan*. Siriako gatazkan inspiratutako itsas margoen bilduma da. Basagurenek, ohikoa duenez, bere arte lanetan adierazten du egiten duen kritika politiko eta soziala.

“*Itsasoa*”, dio artistak, “*munduko gauzarik ederrena izan daiteke, biziaren hasiera... edo guztiz kontrakoa. Amaiera. Heriotza*”. Endika Basaguren artistak ez du edertasun hutsa bilatzen; errealtatea bilatzen du, hura itsusia bada ere. Erakusketa bisitatu ahal izango da asteartetik ostiralera 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara; larunbatetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 21:00etara, eta igandeetan 12:00etatik 14:00etara.



## “Levitation”, Vanesa Piresen argazki erakusketa

Urtarrilaren 9tik 31ra bitartean, Vanesa Pires artista bilbotarrak *Levitation* izeneko argazki-lana erakutsiko du Algortako Kultur Etxean, Villamonten.



Erakusketa Vanesa Pires, argazkilaria freelance eta disenatzaile grafikoaren proiektu pertsonal baten zatia da, 52 astez garatu nahi duena. Astero, urte osoan zehar, argazki bat egin nahi du. Artista saiatuko da nahasten argazkigintzaren teknika eta lantzeko era ezberdinak. Azkeneko helburua da argazkien kalitatea hobetzea.

Erakusketa bisitatu ahal izango da asteunetan, 08:30etik 14:30ak arte eta 16:00etatik 21:30ak arte. Larunbatetan 09:00etatik 13:00ak arte.

getxo | **R2022** | %50 BIRZIKLATZEA DA ERRONKA  
RETO RECICLAJE 50%

EDUKIONTZIAK  
ALDATZEN  
ARI GARA

ESTAMOS  
CAMBIANDO  
LOS CONTENEDORES

 **Getxo**  
*bizi ezazu*



**Getxo**  
*bizi ezazu*





# gaz-teak



**Getxo**  
*bizi ezazu*

Doako alea

309 Zb.  
[www.getxo.eus](http://www.getxo.eus)  
[getxoberri@getxo.eus](mailto:getxoberri@getxo.eus)

>> 2017ko urtarrila

## Nabarmen<sup>tzekoak</sup>

> Lau proiektu hautatu dira Wanted 2016  
Ideia Lehiaketan

> %14 gehitu dira jaiak antolatzeko diru-laguntzak  
> Gazte intereseko elkarreentzat diru-laguntzak



## Modu anitzeko gazte-txartel berria, 26 urtetik beherakoentzat

26 urtetik beherako gazteek ere bidaiatu ahalko dute Bizkaibusen, modu anitzeko gazte-txartel berriari esker. Txartel hori sortu duela iragarri zuen iragan abenduan Bizkaiko Garraio Partzuergoak, datorren apirilean Metro Bilbaoko 3. linea mar-txan jarriko delako. Modu anitzeko txartel berriaren abantailak, honako hauek dira: Metro Bilbao, EuskoTren, Bilboko Tranbia eta Larreinetako Funikularra erabili ahalko dira; eta 10 eta 25€ arteko aurrezpena ekarriko du, erabileren arabera. Horregatik, Bizkaiko Foru Aldundiak erabaki du Bizkaibus zerbitzuan sar-tzea, egungo Gazte Bizkaibus txartelaren ordeztu.

### Bi bertsio

Modu anitzeko txartel berriak bi bertsio izango ditu. Batetik, BARIK URREA GAZTE txartela, bidaiari mugagabeak egitea ahalbidetuko duena, txartela erosi eta 30 egunez elkarren segidan; eta bestetik, GAZTE 70, 70 bidaiari egitea ahalbidetzen duena. Bi txartelak, Bizkaian sistemara atxikitako garraio bide guztietan erabili ahalko dira: Metro Bilbao, EuskoTren, Bilboko Tranbia, Larreinetako Funikularra eta Bizkaibus. Tarifak, erosten den unean hautatutako gune kopuruaren eta familia ugaria bada, horren profilaren arabera izango dira.

Egungo Gazte Bizkaibusekin gertatzen den bezala, titulu berriek BARIK URREA GAZTE ETA GAZTE 70- neurriari egokitutako Barik bat izango dute euskarri. Bada, txartel pertsonal eta bes-terenezina da. Hori erosteko beharrezkoa da Barik txartel per-sonal bat izatea, gazte profila aktibatua duena.

Bizkaibusen gainontzeko txartelak GIZATRANS, CREDITRANS eta ALDIAN behingo Txartela- ez dira aldatuko.



## Lau proiektu hautatu dira Wanted 2016 Ideia Lehiaketan

Gazteria Zerbitzuak eta Ekonomia Sustapenerako sailak batera bultzatutako Wanted ideia lehiaketaren 8. ekitaldiak badu irabazlerik. *Smart wetsuits*, *Hotzean Garbitu*, *Getxo Madness* eta *Katz Estudio Audiovisual* dira, hurrenkera horretan, saria lortu duten proiektuen izenak.

*Smart wetsuits* uretako kiroletako jantzi adimentsu bat diseinatzeko proiektua da; Iñigo Bordek, Javier Estebanek eta Irati Leicia Izaguirrek bultzatutakoa da. *Hotzean Garbitu* bi ezezagunen artean, leku bitxi batean, sorturiko maitasun istorioaren inguruko film laburra da; eta bere bultzatzaileak dira Claudia Alejandra Martínez, Ane Asla, Maddi Barrenechea eta Eneko Díaz. *Getxo Madness* egitasmoak gure udalerrian hain erro-tuta dauden surf eta skatearen inguruko dokumental bat egingo du; Pelayo Berreteagak, Borja Ca-

nibek eta Jon Rosak proposatutakoa da. Eta *Katz Estudio Audiovisual* proiektuan Getxoko hainbat dendarentzako sustapen bideoak egin nahi dira; Ana Angulo, Itxaso Frau eta Nestor Aguirre dira horren sustatzaileak.

Proiektuek jasoko dituzten diru kopuruak honako hauek dira: 7.300€ (*Smart wetsuits*); 4.300€ (*Hotzean Garbitu*); 6.300€ (*Getxo Madness*); eta 4.100€ (*Katz Estudio Audiovisual*). Dirutan hartutako sariaz aparte, proiektu bakoitzak

10 orduko aholkularitza profesio-nala jasoko du, bakoitzak aukeratutako eremuan.

Azkenik, Zurrumurruren kontrako Estrategiatik 300na €ko saria emango die *Hotzean Garbitu* eta *Katz Estudio Audiovisual* proiektuei, bai bata bai besteak aurreiritzi eta zurrumurruren esparrian eragiteagatik. Hori dela eta, Zurrumurruren kontrako Estrategiak proiektu horiek Getxon estrategia horrekin bat egiten dutela aintzat hartu du.

## %14 gehitu dira jaiak antolatzeko diru-laguntzak

Udalak onetsi egin du udalerrian jaiak antolatzeko diru-laguntzak eskatzeko deialdia. Diruz lagunduko diren jaiak honako hauek dira: Inauteriak (Romo eta Algortan), Andra Mari, Sanjuan, Karmen, Santa Ana, Saninazio, Romo, Portu Zaharra, Mesedeetako eta San Martingo jaiak, eta Nazioarteko Paella Txapelketa. Aurtengo aurrekontua 210.952€koa izango da, hau da, 2016an baino %14 gehiago.


Diru-laguntzak eskatzeko epea urtarrilaren 9an irekiko da eta auzo bakoitzeko patroien jaieguna baino 30 egun lehenago itxiko da. Baloratuko diren irizpideak: aurreko urteetan jai berdina antolatzen eskatzaileak duen eskarmentua, antzeko jaiak antolatzen duen eskarmentua eta aurkeztutako egitaraua.

Oinarriak eta eranskinak [www.getxo.eus](http://www.getxo.eus) web orritik behera kargatu daitezke.

## Gazte intereseko elkarteentzat diru-laguntzak

Urtarrilaren 9tik otsailaren 28ra arte zabalduko da epea herriko gazte intereseko elkarten jardueri zuzendutako diru-laguntzak eskatzeko. Diru-laguntza deialdi honetako zenbatekoa handiagotu egin da, 2016ko 22.400€tatik aurtengo 25.760€tara. Diru-laguntza horien helburua da gazte intereseko elkarten ohiko gastu arruntekin laguntzea. Diru-laguntza eska dezakete irabazi asmorik gabeko erakundeek, nortasun juridikoa baldin badute, Getxon helbideratuta badaude eta 30 urtez azpiko kideak badituzte edo/eta jarduera guztiak edo horietako batzuk Getxoko gazteei zuzentzen badizkiete. Aurkeztutako proiektuak 0tik 100era arteko eskala batean baloratuko dira, eta kontuan hartuko diren 15 irizpideren arabera banatuko dira puntuak.

Deialdiaren oinarriak [www.getxo.eus](http://www.getxo.eus) orrian eskuragarri daude.



## Sarrera zozketa, Gazte-txartelarekin

Gazte-txartelaren jabe diren lagunek parte hartzeko aukera dute zozketa batean: 10 sarrera bikoitz zozketatuko dira Guggenheim Museorako eta beste 10 Bilboko Itsasadarra Itsas Museorako. Halaber, gazte-txartela daukatenek 5 gonbidapen bikoitz eskuratzeko aukera izango dute, Donostiako Txuri-Urdin Izotz Jauregirako, eta web orrialdean, [www.gazteaukera.euskadi.eus](http://www.gazteaukera.euskadi.eus), iragartzen diren beste jarduerak batzuetarako, parte hartzeko bertan dagoen inprimakia betez. Zozketen irabazleek beren etxean jasoko dituzte gonbitxartelak, mezulari batek eramango baititu.



## Gazte Bulegoa Instagram sarean sartu da

Gazteria Zerbitzuak eta bere Gazte Bulegoak sare sozial berri bat dute, gazteen artean oso erabilia dena: Instagram. Jarrai ezazu eta informa zaitez gazteentzat egunerokoak eta interesdunak diren gaiez: bekak, lana, trebakuntza, aisialdia... eta askoz gehiago.

<https://www.instagram.com/getxokogazte/>

## BEKAK SARIAK

\* **65 Beka master edo doktoretza ikasketak egiteko**, La Caixa Fundazioak deituta 2017-2018 ikasturterako, Europako Goi-mailako Hezkuntzaren Espazioko (EGHE) unibertsitateetan. Ikasketak, master edo doktoretza mailakoak dira (barne dira ikerketak zientifiko eta teknikoak aurre-doktoretzako proiektuak ere). Bekaren diru-kopurua, herrialde bakoitzaren arabera da. Eskara aurkezteko epea: otsailaren 2ra arte. Informazio gehiago: <https://obrasociallacaixa.org/educacion-becas>.

\* **Eginberri**. Guggenheim Museoa Foru Aldundiarekin lankidetzan, 35 urtetik beherako euskal artistei zuzendutako deialdia da. Edozein arte-diziplina onartzen dira deialdian —arte plastikoak, ikus-entzunezkoak eta performancea—. Aukeraturako sormen-lanak apirilaren 10etik maiatzaren 7ra izango dira ikusgai Museoan (performance lanak beste gune batzuetan ere aurkezteko aukera izango da). Hautatutako artista bakoitzak 1.500 euroko diru-laguntza izango du obrak ekoizteko eta Museoan erakusteko dakartzan gastuak finantzatzeko. Proposamenak aurkezteko epea urtarrilaren 30ean amaituko da. Oinarriak eta izena emateko fitxa: <https://www.guggenheim-bilbao.eus/erakusketak/arte-proiektuen-deialdia/>.

## Gaztelekuaren programazioa

### Urtarrila

**Hilak 7, larunbata:** IRTEERA: UMEEN GABONETAKO PARKEA

**Hilak 8, igandea:** TOPAKETA

**Hilak 12, osteguna:** JAI: URTE BERRIA.

**Hilak 13, ostirala:** TAILERRA: SEXOLOGIA

**Hilak 14, larunbata:** MASTERCHEF LUDOTEKAREKIN: PIZZA

**Hilak 17, asteartea:** ESKULANA: KUADERNAKETA

**Hilak 19, osteguna, eta 27, ostirala:** BAKEAREN EGUNA 4

**Hilak 21, larunbata:** ESKULANA: MALABAREAK

**Hilak 25, asteazkena:** EKINTZA: LIBURU AZOKA

**Hilak 29, igandea:** ZINEKLUBA

GauEgun  
gazteak

